



IRIZPEN ZK.: D21-005

HERRITARREN ARRETARAKO UDAL BULEGOETAN IZAPIDEAK NORBERAK EGITEKO MAKINEN BIDEZ EGINDAKO ERROLDA-BOLANTEEI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGO: Vitoria-Gasteizko Udaleko datuak babesteko ordezkariak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

«(...) Vitoria-Gasteizko Udaletxean, Herritarren Arretarako bulegoetan izapideak norberak egiteko makina batzuk jarri dira. Makina horien bidez udal izapide batzuk egin ahal dira. Egin daitezkeen izapideetako bat da errolda-bolanteak jasotzea: banakako bolantea, bolante historikoa eta bizikidetzabolantea.

Hona hemen errolda-bolanteak jasotzeko prozesua:

- 1. Izapidea aukeratzen da.*
- 2. Makinak daukan eskaner batean NANA jartzen da, eta datu gehiagorik ez da eskatzen.*
- 3. NANA eskaneatzean, pantaila batean agertzen dira NANaren izen-abizenak eta identifikazio-agiriaren zenbakia.*
- 4. Eskatzaileak baieztatzen du datuak zuzenak direla eta, jarraian, pantailan honako bolante hauek aukeran agertzen dira: banakakoa, historikoa eta bizikidetzakoa.*
- 5. Bolante-mota aukeratu ostean, zein formatutan jaso nahi den galdetzen da: Posta elektronikoko bidez bidaltzen den PDFa, paperean inprimatutakoa edo USB batean deskargatzekoa.*
- 6. Nahi den aukera egin ostean, bolantea jasotzen da eta amaitzeko botoia sakatzen da.*

Banakako bolantea jasotzen bada, identifikazio-agirian (eguneraturik egonez gero) agertzen ez den informaziorik ez da ematen.

Bolante historikoa jasotzen bada, pertsona hori 1996az geroztik udalerrian bizi izan den helbide guztien informazioa jasotzen da.

Bizikidetzabolantea jasotzen bada, helbide horretan bolantearen datan erroldatuta dauden pertsona guztien informazioa ematen da, adina kontuan hartu gabe, eta baldin eta pertsona horiek datuak konpartitzeko adostasuna eman badute.

Bizikidetzabolante horretan honako datu hauek agertzen dira:

Izen-abizenak; identifikazio-agiriaren zenbakia; jaiotza-data; helbidean zein datatan izan zen alta; udalerrian zein datatan izan zen alta; zenbat pertsona dauden erroldatuta. Baliteke kopuru horiek aldatzea, zerrendako pertsonaren batek adostasunik eman ez badu bere datuak bizikidetzabolanteetan agertzeko; nor den



eskatzailerak; pertsonaren batek erroldan inskripzioa modu bidegabean egiteagatik baja-espediente bat irekita duen.

Galdetzen da ea aipatu diren agiri horiek azaldu bezala jasotzeak datu pertsonalak babesteko araudia urratzen duen eta identifikazio-sistema seguruagoak erabili behar diren.

Horregatik guztiagatik eskatzen da Bulegoak irizpena eman dezala, jarduketa horrek 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa betetzen dituen ebazteko (...).»

BIGARREN: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

HIRUGARRENA. - Araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin duguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultaren xede diren auzien ardatza da, funtsean, udal biztanle-erroldan egindako datu-tratamendua, zehazki herritarren arretarako udal bulegoetan izapideak norberak egiteko jarritako makinaren bidez errolda-bolanteak –banakakoak nahiz bizikidetzakoak– jaulkitzean egiten den tratamendua.

Udal errolda udalerrri bateko biztanleak jasotzen dituen administrazio-erregistro bat da, eta bertako datuak udalerrian bizilekua izatearen eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Udal erroldan nahiz errolda horretatik ateratzen diren agirietan datu pertsonalak biltzen dira, eta honela definitzen dira datu pertsonalak du 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 4.1 artikuluan –Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Aurrerantzean Erregelamendu Orokorra):

«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Errolda-bolanteak egitea eta ematea datu pertsonalak tratatzea da; eta interesduna ez diren gainontzeko pertsonen datuei dagokienez, horien datuak komunikatu egiten dira.

Datu pertsonalen tratamendua Erregelamendu Orokorren 4.2) artikuluan definitzen da:



«"Tratamendua": datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».

Erregelamendu Orokorrek 6.1 artikuluan ezartzen du zein kasutan den zilegi datu pertsonalen tratamendua eta kasu horien artean jasotzen da a) apartatukoa, hau da, interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

Datu pertsonalen titularrak bere banakako bolantea eta bolante historikoa jasotzen dituenean herritarren arretarako udal bulegoetan izapideak norberak egiteko jarritako makinak bidez, datuak babesteko araudia bete beharko da, oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna delako, baldin eta interesdunak betetzen baditu Erregelamendu Orokorrean eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoan ezarritako baldintzak, jarraian azalduko diren horiek.

Kontsulta, halaber, bizikidetzako errolda-bolantea jasotzeari buruzkoa da, agiri horretan agertzen baitira agiria eskatzen duen pertsonarekin helbide berean errolatuta dauden pertsonak. Kasu honetan, Udalak bere kontsultan honako hau azaltzen du: «helbide horretan agiriaren datan errolatuta dauden pertsona guztien informazioa ematen da, *adina kontuan hartu gabe, eta baldin eta pertsona horiek datuak konpartitzeko adostasuna eman badute*».

Kontuan hartu behar da datu pertsonalen tratamendurako eman beharreko adostasunak Erregelamendu Orokorrean ezartzen diren baldintzak bete behar dituela. Baldintza horiek 3/2018 Lege Organikoaren 6. artikuluan ere agertzen dira:

- Erregelamendu Orokorren 4.11) artikulua honela definitzen du adostasuna: «interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena».
- Eta zehatzago, Erregelamendu Orokorren 7. artikuluan adostasunerako baldintzak ezartzen dira; besteak beste, kontsultarekin zerikusia duten baldintza hauek aipa daitezke:
 - 1.- Tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari.
 - 2.- Interesdunaren adostasuna adierazten bada beste gai batzuk ere ukitzen dituen idatzizko adierazpen baten testuinguruan, adostasun-eskaera beste gaietatik argiro bereizteko moduan aurkeztuko da, erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran, eta hizkera argia eta erraza erabilia. Erregelamendu hau urratzen duten adierazpen-zatiak ez dira lotesleak izango.
 - 3.- Interesdunak eskubidea izango du adostasuna bertan behera uzteko nahi duenean. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarrituriko tratamenduaren legitimitatean.



Adostasuna eman aurretik, interesduna horren jakitun jarri behar da. Adostasuna kentzea ematea bezain erraza izango da.

Horrez gain, Udalaren kontsultan planteatzen da bizikidetzako errolda-bolanteetan helbidean erroldatuta dauden pertsona guztien informazioa ematen dela, adina kontuan hartu gabe.

Gainera, Udalak, adingabeen datu pertsonalak ematean, Erregelamendu Orokorrak eta 3/2018 Lege Organikoak ezartzen dutena bete beharko du. 3/2018 Lege Organikoaren 7. artikuluan honako baldintza hauek ezartzen dira adingabeen adostasunari buruz:

1. Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da hamalau urte baino gehiago baditu, ez bestela.

Horren salbuespena gertatzen da legeak guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularren presentzia exijitzen duenean egintza edo negozio juridiko bat egiteko, zeinaren barruan tratamendurako adostasuna eskatzen baita.

2. Hamalau urtetik beherako adingabeen adostasunean oinarritutako datuen tratamendua bakarrik izango da zilegi guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrarena badago, eta guraso-ahal edo tutoretzaren titular horiek zehazten duten helmena izango du.

Azkenik, eta bizikidetzako errolda-bolantei dagokienez, dirudienez, kontsultatik zera ondorioztatzen da: eskatzailearen helbidean erroldatuta dauden pertsona guztiak barnean hartuko ez dituen bizikidetzako bolante bat jasotzea dago, hau da, euren datuak «konpartitzeko» adostasunik eman ez duten pertsonak bolante horretatik ezabatzea.

Baina bizikidetzako errolda-bolante partzial bat egin eta jasotzeko aukerarik egongo balitz, urratu egingo litzateke 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakaritzak eta Autonomia eta Toki Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak emandakoa, zeinaren bidez udal erroldaren kudeaketaren gaineko jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie Udalei (BOE, 122. zenbakia, 2021-05-2koa). Ebazpen horren 8.1.1 arauan («Erroldako ziurtagiria eta bolantea») ezartzen denez, bai errolda-ziurtagiria bai errolda-bolantea helbide jakin batean inskribatutako pertsona **bati** edo **guztiei** buruzkoak izan daitezke. **Ezin da batzuei buruzko errolda egiaztagiririk eta bolanterik egin; eta, egitekotan, etxebizitza berean inskribatuta dauden guzti-guztiei buruzkoak izan behar dira.**

II

Errolda-bolanteak jasotzeko identifikazio-sistemen segurtasunari dagokionez, identifikazio-prozeduraren azalpenetik ondorioztatzen da NANaren irudi eskaneatua prozesatzen dela eta datuak OCR bidez (Karaktere Ezagutze Optikoa) jasotzen direla, datu gehiagorik eskatu gabe (hau da, ez direla erabiltzen eDNIaren ziurtagiri elektronikoak, ezta pasahitza ere).

Antza denez, prozedura horren segurtasuna bi presuntziotan oinarritzen da: Alde batetik, presuntzio horietako bat da egitate hau: «*Nortasun Agiri Nazionala (...) **pertsonala eta besterenezina** da, eta titularrak, indarrean eduki ez ezik, behar adinako arretaz **gorde eta zaindu** ere egin behar du*». Hala dio 4/2015 Lege Organikoaren, Herritarren Segurtasuna Babestekoaren 9. artikulua. Beste presuntzioa da eskaneatze-sistemak hainbat mekanismo edukitzea, egiaztatzeko agiria **autentikoa** dela eta Karaktere Ezagutze



Optikoko sistema engainatzea helburu duen **faltsifikazio edo kopia manipulatu** bat ez baizik eta benetan agiri balioduna dela. Azken hori ez dakigu hala den, eta tratamenduaren arduradunak baloratu beharko du.

Bestalde, datu pertsonalen tratamendurako segurtasun-neurriak hartu beharko dira «*kontuan hartuta askotariko probabilitate eta larritasun-mailako **arriskuak***» eta, horrenbestez, «**arrisku horri aurre egiteko adinako** arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak» aplikatuko dira, Erregelamendu Orokorraren 32. artikulua araberan. Hau da, ez da lortu nahi erabateko segurtasuna, baizik eta arriskuari aurre egiteko adinakoa eta egokia den segurtasuna.

3/2018 Lege Organikoak lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duenez, arduradunek – Administrazio Publikoek, besteak beste– Segurtasunaren Eskema Nazionalan dauden segurtasun-neurrietatik dagozkienak aplikatu beharko dizkiete datu pertsonalen tratamenduei, eta Segurtasunaren Eskema Nazionalak datu pertsonalen tratamenduan beharrezkoak diren neurriak txertatuko ditu, datuok ez daitezen galdu, aldatu edo baimenik gabe irispidean jarri, eta, horretarako, datu-tratamenduaren arriskua zehazteko irizpideak Erregelamendu Orokorraren 32. artikulua xedatutakoaren araberan egokituko ditu.

Horrenbestez, NANaren karaktere ezagutze optikoan oinarrituta ezarritako identifikazio-sistema egokia den ebazterakoan, tratamenduaren arduradunak zera egin beharko du:

- NANaren titularrek agiri horren kontrola galtzeko arriskuak eta bestelakoak gertatzeko **probabilitaterik** dagoen edo, bereziki, agiri horiek hirugarrenek titularren kalterako faltsutzeko edo manipulatzeko **erraztasun edo aukerarik** dagoen baloratu,
- NAN faltsutu edo manipulatu bat erabilita errolda-bolante bat jasoz identitatea ordezteak NAN horren titularrei ekarri ahal dizkien **ondorioen larritasuna** baloratu.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 22an